

Marbellako zerbitzari baten egunerokoa:

Prekaritatea, gehiegiakeria eta turismoaren mendekotasuna

Udako opor hauetan ez dira gutxi izango Andaluziako eguzki eta ur epel bila doazen euskal herritarrak. Kontrako bidea egin zuen Ana Geranios (San Pedro Alcántara, Andaluzia, Espainia, 1988) kazetari eta idazleak martxo amaieran, Euskal Herrira etorri baitzen Costa del Sol-en jasaten dituzten turismoaren ondorioak azaltzera eta zerbitzarien prekaritateaz ohartaraztera: “Ostalaritzaren gaitza da zure bizitza eta denbora librearen turismoaren eskaeraren menpe daudela”.

 LEIRE ARTOLA ARIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Geraniosek 2019ko uda pasa zuen Marbellako turistei garagardoa zerbitzatzen zien esku berberekin lanaldiaren amaieran bere egunerokotik abiatutako liburua idazten. *Verano sin vacaciones. Las hijas de la Costa del Sol* (Piedra Papel Libros, 2023) (Oporrik gabeko uda. Costa del Soleko alabak) lana izan zen emaitza, eguneroko bat eta saiakera politikoago bat uztartzen dituen. Horixe aurkeztu zuen Donostiako Hontza liburu dendan, desazkunde turistikoaren aldeko donostiarraren Bizilagunekin plataformak gonbidatuta. “Ostalaritzako langile klaseari protagonismoa eman nahi nion liburu honekin, inoiz ez delako protagonista”, aitortu digu.

Turistez betetzen ari den Donostia erdigunean egin dugu hitzordua, Hontza liburu dendatik gertu dagoen kafetegia baita. Geraniosek frappe bat eskatu nahi izan dio zerbitzariari, baina bost euro prezio garestiegia iruditu zaio; 1,95 euroko kafesnea hobe. Malagako Costa del

Solen bezala, Euskal Herriko kostaldean ere nabari da nori bideratuta dauden komertzio gehienak. Geraniosek ezagutzen duen turismo eredua aisialdikoa da, parrandara eta desfaseratuta baitoa jendea Marbellara; Donostian turismo kulturalagoa dagoela iritzi du: “Uste nuen oso desberdinak zirela, baina egia da ehun sozialean duten higadura berbera dela. Bi lurraldeetan gero eta gehiago egiten da apustu ostalaritzaren negozioaren alde. Bi turismo motetan sortzen da gero eta komertzio gehiago turistarentzat, eta etxebizitzaren prezioa igotzen da”.

Horri guztiari Costa del Soleko turismoak dakartzan berezitasunak gehitu behar zaizkio. Geraniosen herritik gertu dagoen Puerto Banús-en kasua kontatu digu –bertan egin zuen lan zerbitzari gisa–, non luxua eta gozamenaren diren Marbellako toki hori ezagutarazteko instituzioek eta enpresek erabiltzen dituzten ezaugarri nagusiak. “Jende oso gutxi doa Puerto Banúsera miresmen eta erres-

petuz. ‘Nahi duzuna egiteko toki’ bezala saltzen dute, dena daukazu: prostituzioa, drogak, nahi beste janari... eta ondorioz gabe egin dezakezu dena. Turistek pentsatzen dute merkea dela, eta zerbeza gehiago eskatzeko besterik ez zaituzte behar. Ez dakite ezta non dauden ere”. Geraniosek kritikatu du turistek langileekiko duten tratua “mesprexuzkoa” dela askotan, eta klasismoa nabaria dela, hara doazen gehienak aberatsak baitira, eta txartelarekin guztia erosi dezaketela uste baitute; salgai dagoena eta ez dagoena.

LEHEN SEKTOREA UTZI ETA TURISMO SEKTORERA LANERA

Puerto Banúsen ez dago bisitatzeko toki erakargarri edo historikorik, Geraniosek deskribatzen duenez, baizik eta festarako eta aisialdirako establezimenduak besterik ez. Ez da kasualitatea. 1960ko hamarkada arte landa eremua zen, eta José Banús enpresari eta higiezinaren erakitzailak luxuzko eremu turistiko gisa



berreraiki zuen, Franco diktadorearen babesarekin. Erorien Harana eraikitzen parte hartu zuen enpresariak berak sustatu zuen Erresuma Batuko eta Europako beste zenbait lekutako aberaskumeak Costa del Sol kontsumitzera joatea.

Garai hartan aurrerapen eta lan iturri gisa bizi izan zuten inguruko herrietako langileek. Batik bat nekazariak ziren, eta ostalaritzan lan egitera pasa ziren asko, landa eremua utzi eta kostaldeko herrietara mugituta, Geraniosen gurasoak tar-tean. Honelaxe laburbiltzen du Costa del Soleko alabak, liburuan: “Costa del Solen jaio gara, lana eta bizi kalitatea zeuzkan tokia zelako. Baina denborarekin ohartu gara lehenak ez zuela toki eta espaziorik uzten bigarrenarentzat”. Aldaketa ez zen erraza izan, andaluziarrak gogoraz-

“ ”

*Costa del Solen
langileek ez dugu
gozamenerako tokirik*

ten duenez: “Landa eremutik iritsi ziren lehenbiziko zerbitzariak shock handia bizi izan zuten, eta gure gurasoen belaunaldiak ere bai. Aberats jende horrekin erlazionatzen hasi zen jende xumea, eta are, pentsatzen zuten mundu horren parte zirela, oso gertu daudelako. Baina

azken finean jarraitzen duzu langile pobrea izaten”.

Puerto Banúsen eta inguruetan bizi den langile klasea testuinguru horretara ohituta egoteari “arriskutsua eta bortitza” deritzo, luxutik hain gertu eta hain urrun egoteari: “Nerabetan jasotzen duzun mezua zera da: oxala yate bat izatea, oxala ferrari bat izatea... Eta hain baimenduta dago bizimodu hori, horren parte izan nahi duzula”. Dena den, Geraniosek dio kanpora erakusten den luxu hori ez dela Puerto Banúsen benetan dagoena: “Marketina da dena. Agian badaude ezagutzen ez ditudan toki pribatuak, baina oro har oso toki dekadentea da, mozkorkeria handia dago, drogak... Batzuk horrela gustura daude igual, baina ez da izugarritzko tokia”.

ZERBITZARIA TURISTEN MENPE

Turista festazaleek garagardoz leporaino gozatzen jarraitzeko, euren esanetara egongo diren zerbitzarien beharra dute, ezinbestean. Geraniosek, ordea, ostalaritzan bizitako esperientziatik dio inork ez lukeela inor zerbitzatu behar: “Ostalaritza behar ez dugun luxua da. Ez da oinarritzko beharra, zapatari edo jostun bat bezala, adibidez”. Jakitun da hiriak gero eta gehiago oinarritzen direla ostalaritza komertzioetan, eta dioenez herritar oro “turista” bihurtzen da ondorioz. Zenbait galdera bota dizkigu: “Zergatik behar dugu zerbitzatu gaitzaten? Zergatik nahi dugu aldendu guk geuk gauzak egitetik? Zergatik nahi dugu uneoro norbait eduki gauzak eginda ematen dizkiguna?”. Garai batean bidaiarientzako ostatuak egotea zentzuzkoa zela iritziz du, baina gaur egun ez du beharrezko ikusten “hainbeste jattetxe eta taberna” egotea. “Espazioa jatten dute, beste lokal mota batzuen zein espazio publikoarena. Adibidez, kalean gero eta banku gutxiago daude tabernetako terraza gehiago daudelako. Negozio eredu honek hirietako bizitzak eta harremanak pobretzen ditu”.

Zerbitzarien prekaritatea ere salatzen du Geraniosek: lanaldi amaiezina, solda-

“ ”

*Ostalaritza behar ez dugun luxua da.
Zergatik behar dugu zerbitzatu gaitzaten?*

ta oso eskasak, denboraldika lan egitea, deskantsurik ez, nagusien zapalkuntza... “Costa del Solen langileek ez dugu gozamenarako tokirik”, dio, eta euren bizimodu turistaren beharrak asetzerantz bideratuta dagoela azaldu du. Esaterako, txikitatik ingelesa ikastera bultzatzen dituzte: “Baina ez gure hobe beharrez, Londresera ikastera joan ahal izateko, adibidez, bai zik eta bezeroen beharrei erantzuteko”. Zerbitzariak nagusiaren eta bezeroen menpe daude, eta horien eskaeren arabera askotan “langileek direna izateari utzi behar izatea oso bortitza” iruditzen zaio. Andaluziarren kasuan hizkerarekin asko gertatzen dela dio: “Espainolez hitz

egiten ez dakiten espainolak garela eta ‘gaizki’ egiten dugula esaten digutenez, sentitzen dugu hizkera ere aldatu behar dugula”.

Emakume zerbitzarien gorputzak ere bezeroentzat sexualizatzen dituzte, Geraniosek berak bizi izan duenez, askotan uniforme gisa gona motzak baitituzte, besteak beste. “Genero kontuak ostalaritzan ere ñabardurak ditu. Gizonak nahi dutena kontsumitzera eta ondo pasatzera datoz, eta uste dute zerbitzariari ipurdia ukitu ahal diotela, eta telefono zenbakia eskatu. Oso bortitza da”. Izan ere, gogorarazi du aisialdiko turismo horretan eskaintzen dela “nahi guztiak asetzeko” prest daudela denak: “Turismo eredu hain kontsumista honetan oso inplizitua da indarkeria matxista, batik bat alkohola-eta tartean daudenean; *pack*-ean sartzen da indarkeria”.

Ze erreminta dituzte horrelako erasoerak aurre egiteko? “Bakoitzak ahal duena egiten du, ez dago protokolo bat”. Geraniosek oroitzen du hasi zenean blokeatuta geratzen zela ukituen aurrean, baina denborarekin “estrategiak garatzen” direla, oihu eginez erantzutea, kasu. “Halere, agian zure nagusiak errieta egiten dizu bezeroari oihu egin diozulako. Territorio arrotza da, zaila delako horrelako egoeren aurrean lantaldearen babesa eta laguntza lortzea. Bezeroak du arrazoia beti, hortaz, inpunitatea ere bai. Langile emakumeak abandonatuta gaude zentzu horretan”. Ez du egoera hobetzen laguntzen ostalaritza sektorearen behin-behinekotasunak. Geraniosek berak egin bezala –egun kazetari gisa egiten du lan–, langile askok epe laburrerako lan gisa baitute ostalaritzakoa, aipatu ditugun baldintza prekarioak tarteko, eta baldintza duinak exijitzeko zerbitzarien artean antolatzea ere zailagoa baita. “Hain nekaztuta bukatzen da lanaldi luzea, antolatzeke ere indarririk ez dagoela askotan”.

HONDARTZA HOBEAK, TURISTAK ERAKARTZEKO

Costa del Sol 1950eko urteen inguruan hasi ziren turistifikatzen, beraz, “jendea ohituta dago pentsatzera turismoaz bizi direla”, Geraniosen hitzetan: “Lana ematen digula pentsatzen dugu, eta horregatik heldu gara onartzera lan baldintza horiek”. Ostalaritzako langileen bizitzak “turismoak erabat baldintzatuta” daudela dio, “ez duelako frenorik”. “Aste honetan ezin da deskantsatu”, esaten diete, eta ekitaldi bereziren bat dagoelako lanaldia luzatzera behartuta daude, “eta ezin duzu





ezetz esan". "Iruditzen zait ostalaritzak beste lan batzuk baino askoz gehiago eragiten diola bizitzari", ziurtatu du andaluziarrak.

Dena dela, herritarrak oro har sine-tsita daude turismoa onuragarria dela inguru horientzat, eta Geraniosek San Pedro Alcántarako adibide bat eman digu: "Kuriosoa da, nire herriko hondartza oso txarra da, eta herritarrak kexatzen hasi dira esanez ea nola etorriko diren turistak horrelako hondartza baldin badugu". Hondartza hobetzea eta herria "politago" jartzea nahi dute, ez eurentzat, baizik eta kanpokoentzat. "Harrigarria da, hain ohituta gaude turismoarekin, gizarte eta herri gisa dauzkagun gure beharren aurretik jarri ditugula turisten beharrak". Horretaz jabetzeak "eragin handia" izan zuen Geraniosengan, eta sentimendu horietatik abiatuta idatzi zuen liburua ere.

"Tristura handia ematen dit ikusteak nola aldatu den herria eta espazio publikoa, baita bertako komertzioak ixteak ere". San Pedro Alcántara Marbellako langile klasea bizi zen herri bat zen, baina duela bospasei urte aldatu egin da, eta 2015-2017 aldera turistifikatzen hasi da, Costa del Soleko hainbat herri

“ ”

*Harrigarria da,
hain ohituta gaude
turismoarekin, gizarte eta
herri gisa dauzkagun gure
beharren aurretik jarri
ditugula turisten beharrak*

bezalaxe, andaluziarrak oroitu duenez. Adibidez, lehen baratzeak zeuden zabalgunean orain kirol espazio handia jarri dute, lehendik beste bat bazegoen arren. Betiko herriko plaza ere turistentzako toki bihurtu dute, "homogeneizatuta". "Jendearekin egoteko txokoak edo sozializatzekoak galdu egin dira". Dinamika toki turistifikatu guztietan errepikatzen dela nabarmendu du: "Turistei ematen zaie bertakoentzat ez dagoena. Herriari

ez zaio entzuten, pentsatzen dut hemen ere antzekoa gertatzen dela. Beti diot, utopia bezala: turismoan inbertitu beharko litzateke, herritarren beharrak aseta daudenean".

PREKARIZAZIOA EZ BABESTEKO, EZ KONTSUMITU

Turismora ohituta egon arren, Marbella eta inguruko hainbat herritar ere ari dira antolatzen turistifikazioaren aurka, eta Geraniosek ere uste du kolektibizazioa dela bidea. "Agian ez du arazoa konponduko manifestatzeak edo ekintzak egiteak, baina ezin diegu hain erraz utzi nahi dutena egiten, kontrakotasuna izan dezatela. Herritarren erantzuna egotea oso inportantea da". Horrez gain, andaluziarrak uste du inportantea dela non kontsumitu erabakitzea, horrekin eredu bat edo beste babesten ari garelako: "Guri dagokigu kontsumitzaile eta herritar bezala ez kontsumitzea toki batzuetan, jakinda langileak esplotatu egiten dituztela. Kontsumitzeari utzita ere eragina izan dezakegu". Opor hauetan hausnartzeko auziak utzi dizkigu Geraniosek, Andaluziara joandakoan edo gure herrietan geratuta ere. ●